

HIRI ERRAZAGO ETA ATSEGINAGO BATEN ALDE,  
ETORKIZUNERA BEGIRA



**BAIONA**

besterik gabe

Herriko hauteskundeak - 2026ko martxoaren 15ean eta 22an



**BAIONA**  
besterik gabe

## Henri Etchetoren hitza

**Baionar maiteak,**

Gaur egun bizitza politikoak ematen duen ikuskizunarekin denok kezkatuta gauden honetan, herriko hauteskundeak aukera ematen digute **ekintza publikoari berriro zentzua emateko**. Espiritu horrekin aurkezten diegu Baionarrei **etorkizunera begira dagoen alternatiba sinesgarri eta solidarioa**, politika alderdikoien menpe egon gabe.

**Egungo auzapezak** diru kopuru handiak xahutu ditu hirigunea **erakusleihen erraldoi** bihurtzeko: bisitarientzako gune turistiko eta ekitaldiz betea. Politika **gehiegizkoa eta garestiegia** izan da, eta horren kostua **hiria berak, bertako biztanleak eta haien beharrak kaltetu** ditu.

Hori aldatu nahi dugu. Hurbiltasuneko politika batera itzuliko gara, gure garaiak eskatzen dituen ingurumen eta aurrekontu erronkei egokitua.

Gure lehentasuna argia da: **gure hirian, bere auzo guztietan bizi diren guztiei, lehentasuna ematea**. Etxebizitza, mugikortasuna, aparkalekua, espazio publikoak, hurbileko zerbitzuak: gaur egun zailtasunak dituzten gai horietan, **Baiona errazagoa egin nahi dugu Baionarrentzat**.

Zuen konfiantzarekin, **zuengandik hurbilago egongo den herri gobernantza** osatuko dugu, zuen itxaropenak eta beharrak entzunez, **Baionaren izpirituari leial** egoteko: hiri herrikoia, zubien eta elkarguneen hiria, bateratua, atsegina eta solidarioa izaten jarraitzeko gai dena.

*Henri Etchegoren*



## ➔ Biztanle guztiez arduratzen den hiria

- Auzoetako **herri erregiak** sortuko ditugu, eguneroko zerbitzuak bertara eramateko, bereziki gure adinekoei etxean ongi zahartzeko aukera emanez.
- **Lasaitasun publikoa indartuko dugu**
- Urtero, herritar bakoitzarentzat **sarrera bat eskuragarria** museotan eta antzokian, eta **kultura, kirol eta ongizate aktibitateentzat sarbide zabalagoa**.

## ➔ Gazteak eta familiak laguntzen dituen hiria

- Eskolarik ez duten auzoetan **eskolak eraikiko ditugu**, eta gainerakoak berrituko ditugu, berdeguneak lehenetsiz.
- Baionako eskoletako **jantokiaren prezioak apalduko ditugu**.
- Baionar ikasleen **herriko diru laguntzak handituko ditugu**, eta nazioarteko mugikortasunarako eta pratika profesionaletarako sarbidea erraztuko diegu.

## ➔ Etxebizitza eskuragarriagoa duen hiria

- **Alokairuen kontrola** eta etxebizitza turistikoen erregulazioa indartuko ditugu.
- Etxebizitza sozial eta pribatuen **ekoizpena sustatuko dugu**.
- **Energia-berrikuntzak eta isolamendu obrak** bultzatuko ditugu.
- Jabeak segurtatzeko politikak garatuko ditugu, **beren ondasunak prezio eta baldintza eskuragarrietan** alokatzera sustatzeko.
- Higiezinaren eraikuntza **hiriko benetako beharretara egokituko dugu**.

## ➔ Mugikortasun hobea duen hiria

- Auzoetako **igarobide-trafikoa murriztuko dugu**, eta garraio publiko sare eraginkorragoa landuko dugu.
- **Garraio publikoa urririk izango da gazteentzat**.
- Bertan bizi direnentzat lehentasunezko aparkalekuak eskainiko dizkiegu, eta **errelebo aparkaleku gehiago** sortuko ditugu hirigunea arintzeko.

## ➔ Etorkizuna prestatzen duen hiria eta elkargoa

- **Neurritasuna eta iraunkortasuna** izango dira herri inbertsioen ardatza.
- Epe luzerako **hirigintza-ikuspegia** berreskuratuko dugu, etorkizuneko beharrak aurreikusiz.
- **Lesseps kaia auzo ekologiko eredugarri** bihurtuko dugu.
- Tokiko ekonomia ez dadila turismoan soilik oinarritu: **berrikuntza eta bikaintasuna** sustatuko ditugu.

## ➔ Auzoak ahazten ez dituen hiria

**Errobiko kaiak, Merkatu plaza eta Baiona Handiko oinezko kaleak ezin dira izan herrko etxearen kezka bakarra.**

- Herriko ekintza **auzoetara berriz orekatuko dugu**, bertako bizilagunen ahotsa entzunez.
- **Autobus-leihatila** batek administrazio-zerbitzuak zuren auzoko plazaraino eramango ditu.
- Auzo bakoitzean **berdeguneak eta aisialdirako espazioak** sortu eta indartuko ditugu.
- Bizi kalitatea hobetuko dugu **zarata eta aire-kutsaduraren aurka** borrokatuz

## – – ➔ Nor garen :

### **Baiona, besterik gabe!**

Errepublikazale, sozial eta ekologikoaren balioetan oinarritutako taldea gara, baina **irekia**, dogmatismorik eta sektarismorik gabea.

Beren hiria maite duten sentsibiltate guztietako herritarrei zuzendutako desmartxa gara,

Baionaren betiko nortasunari leial izateko borondatea dugu: **elkarguneen eta zubien hiria**, Euskal Herritik, Landesetatik eta urrunagotik etorritako emakume eta gizonak elkartu dituen, **tolerantzia eta etorkizun partekatu baten nahian**.



**Kanpaina osoan, Baionarako gure proposamen konkretuak trukatzeko hitzordua ematen**

## **Contacts**

bayonnetoutsimplement@gmail.com

Tél. : 06 31 27 46 08

📷 @henrietcheto

📺 @hetcheto

[www.bayonnetoutsimplement.fr](http://www.bayonnetoutsimplement.fr)